

“GEROA, duela 20 urte baino gehiagoko ekimena da. Zalantzarik gabe, faktore diferentziala da gipuzkoarrentzat.”



Eduardo Junkera, Durangon jaioa eta formakuntzaz industri ingeniaria eta orain dela gutxi Adegiko Lehendakaria izendatua, Egile Corporation XXI, S.L ko fundatzailea da eta GEROA n Zuzendaritza Batzordeko kide da enpresen ordezkari gisa. Bere ustez, Gipuzkoan garatutako bere enpresaburu karreran, beste lurralde batzuekin ikusitako aldea GEROA da. Bere iritziz, bertako lan taldeak langileen baliabideak oso ongi kudeatzen ditu, finantza-etekinak desiragarriekin eta erakunde honek erakusten duen harreman maila, beste eremu batzuetara ere zabaldu beharko litzateke.

- **Bizkaitarra, Durangokoa, baina enpresaburu Gipuzkoan eta Egile Corporación XXI-en presidente. 2015ean, “Euskal enpresaburu onena” izendatu zintuen Fundación Empresa Vasca y Sociedad fundazioak. Zer iruditu zitzaizun aintzatespen hura?**

Bada, jaso dezakegun edozein aintzatespenek bezala, sentimendu ugari nahasten dira: poztasuna, harrotasuna, esker ona... Gero, hausnarketa egin ondoren, benetan bereizgarri hori merezi ote dudan galdetu izan diot neure buruari. Ziur nengoen neuk baino gehiago merezi zuten enpresaburuak zeudela, baina niri eman zidaten. Eta beti eskertuko diet bereizgarria eman zidatenei eta egunero enpresan laguntzen didatenei. Sari hori azken horiena ere bada.

- **Egun hartan esker ona adierazteko eman zenuen hitzaldian, Geroaren ontasunak goratu zenituela gogoratzen dugu. Zergatik?**

Egia da. Nire enpresaburu-karrera Gipuzkoan garatu dut; bertan gauza asko ikasi ditut, eta beste lurralde batzuekin aldeak ikusi izan ditut. Horietako bat GEROA da, gipuzkoar langileek duten baliabidea, eta horrek diferentziala ekarriko du bizkaitarren eta arabarren aldean izango duten erosteko ahalmenean, erretiratzeko direnean. Gainera, oso ongi kudeatzen ari da eta bazkideentzat finantza-baliabide oso garrantzitsuak eskuratzen ari dira.

- **Zure ustez garrantzia al du Geroaren irudiak, besteak beste, gure gizarte-ongizatea lortzeko eta hari eusteko? Zure ustez Gipuzkoako faktore diferentzial positiboa da?**

Zalantzarik gabe. Batez ere, iragarri bezala eta dakigun bezala, Gizarte Segurantzaren pentsioen sistema jasangarria denean... pixkanaka Gizarte Segurantzaren estaldura murrizten joango da eta hori beste banako pentsio-plan batzuekin konpentsatzen joan beharko da. Hori horrela, GEROA, duela 20 urte baino gehiagoko ekimena, zalantzarik gabe faktore diferentziala da gipuzkoarrentzat. Denborarekin, gehiago nabarituko da.

- **Bizkaitarra izanik, ez zenuke nahiko GEROAren eredia Bizkaian eta Araban ere zabaltzeko? Beharrezkoa izango litzateke?**

Bai, jakina. Gainera, aukera dudanean, iritzi hori berori ematen diot harkorra eta jarduteko edo eragina izateko gai izan daitekeela uste dudana orori: politikariak, enpresaburuak eta abar. Ziur nago gaurko ahaleginak biharko onuretan izango duela etekina. Horretarako, guztiok, enpresek, sindikatuek, langileek eta baita administrazioak ere ariketa zintzoa egin behar dute ahaleginak versus emaitzak ebaluatzeko. Eta, nire ustez, emaitzek eragingo dute balantzak ekimen horren alde egitea. GEROAren adibideak, eskuratzen ari diren emaitzak kontuan izanda, lagundu dezake zalantza asko argitzen.

- **Pentsio publikoen jasangarritasuna eta nahikotasuna kalean eta komunikabideetan eztabaidagai den sasoi honetan, zer iritzi duzu Eusko Jaurlaritzak Euskadin gai horren inguruan egiten ari den jarduketari buruz, kontuan izanik bertako zahartze-indizea oso altua dela?**

Kalean ikusten dugunak erakusten du Gizarte Segurantzaren sistema ez dela jasangarria eduki ohi ditugun estalduretan eta, nire ustez, gero eta agerikoagoa izango da. Badakit Eusko Jaurlaritzak horren kontziente dela, eta GEROA formula Euskadi osora zabaltzea

antolatze ahaleginetan diharduela. Baina, horrez gainera, nire ustez gizartea mentalizatu behar da errealitateari Gizarte Segurantzaren sistemaren beheranzko estalduren bidez egin behar zaiola aurre eta, beraz, aurrezpen-planak, pentsio-planak edo antzekoak ezarri behar direla.

- **Esan liteke pentsio publikoen estaldura, denborarekin, txikitu egingo dela. Uste duzu enpleguko BGAEak komenigarriak izatek beharrezkoak izatera igaro direla, gure pentsiodunek bizi-maila egokiari eutsi ahal izateko?**

Lehen esan dizudanez, beharrezkoak izango dira, erabat. Europako herrialdeetan ikusi dugu, batez ere Europako iparraldeko herrialdeetan. Horietan, pentsio publikoaren estaldura, kasu batzuetan, % 30ekoa ere ez da.

- **Jende askok jartzen ditu zalantzan BGAEak edo pentsio-funtsak, kostu altuak eta errentagarritasun baxua dituztelako, eta finantza-erakundeen mesederako baino ez direlako. Zure ustez enpleguko BGAEek, independenteak eta jeneralistak izatean, eraginkortasun gehiagoz beteko dituzte herritarrentzako pentsio-osagarriak?**

Aukeratu ahalko banu, GEROA bezalako erakundeak hautatuko nituzke; izan ere, bertako taldeak kudeatzen ditu bere baliabideak, alegia, bere akziodunenak, langileenak. Eta gainera oso ongi egiten du; hala erakusten dute emaitzek, kudeaketa-kostua murrizten da. Nolanahi ere, jendeak barneratu behar du zer garrantzitsua den aurreztea eta, gero, aholkularitza ona jasotzea, aurrezpen kontuetan konfiantza izateko orduan.

- **Geroako Gobernu Organoetako partaide zara. Garrantzitsua da, zure ustez, horiek paritarioak izatea eta % 50 enpresa-aldetikoak izatea?**

GEROAn Zuzendaritza Batzordeko kide naizen aldetik parte hartzen dut, enpresen ordezkartzan. Zehazki, gogoko dut dagoen oreka: % 50 enpresak (ADEGI) eta % 50 langileak (zentral sindikalak), eta oso gogoko dut antzematea alde biak defendatzen direla eta akordioetara iristen direla, kasu honetan batzen dituzten onurarako: GEROA. Hori horrela, erakunde honek erakusten duen harreman maila, nire iritziz, beste eremu batzuetara ere zabaldu beharko litzateke, gizartean hain beharrezkoa den binomio hori, pertsonak-enpresa, defendatzeko.

- **Eta, praktikan, zein dira Geroako bazkide izateagatik langileek dituzten onurak?**

Aurrezpenak, ongi kudeatuak, finantza-etekin oso onekin eta erretiroa hartzen dutenerako oso laguntza onarekin.

- **Eta, enpresak?**

Enpresek, hasiera batean, ekarpenak egitean gehiegizko esfortzua antzeman dezakete. Eta, jakina, bada. Baina pertsonen soldataren zati gisa hartzen denean, elementu diferentzial eta sustagarri gisa ikusten hasten dira, beste eskualde batzuetatik datozen etorkizuneko langileei eskaintzekoa, edo, nolana ere, etorkizunean gizarte-arazoak ezabatuko dituen sistema sortzen laguntzea asegarria da berentzat.

- **Zure ustez beharrezkoak izango lirateke zerga-pizgarriak enpresentzat ere?**

Nire ustez bai, batik bat dinamika horietan sartzen hasten diren enpresentzat edo etorkizuneko estaldurak handitzeko ekarpenak areagotzen dituzten kasuetan. Kasu horietan, zerga-pizgarria administrazioarentzat inbertsio-bidea izan daiteke, etorkizunera duen eragin biderkatzailea eta gizarte-itzulkinak kontuan hartuta.

- **GEROA ahalegina egiten ari da komunikazioan. Nola azaltzen zaie enplegatuei Geroa zer den? Nola ulertzen dute gazteenek?**

Nire ustez oso garrantzitsua da harreman pertsonala. Hori horrela, zuzendariak ahalegina egin beharko lukete enpresa bakoitzean, denbora emateko GEROAk benetan ematen duen balioa azaltzen, eta, gazteei azaldu behar zaie etorkizuneko erretirorako dagoeneko ez dutela izango beren gurasoek beharbada izan duten Gizarte Segurantzaren estaldura, eta, besteak beste, GEROA bezalako aurreikuspen-planak antolatu behar direla.

- **Zer iruditzen zaizu Geroak euskal industria-egituraren alde egiten duen lana (inbertsio-ildo berriak, ekintzaitzarako laguntza...)?**

Ezinbestekoa iruditzen zait GEROA lortzen ari den finantza-etekinen zati bat etorkizunean beste enpresa batzuen sorrera izan daitekeen eremurako izatea, horietako pertsonak ere GEROAko etorkizuneko bazkide ere izango direla. Ekonomia zirkularra da kontua, ezta?

- **Geroak oraintsu bere bazkide langileei eginiko inkesta batek emandako datuen arabera, horietako % 90 inguruk beren enpresetan jarraitu ezean ere ekarpena egiten jarraitu nahiko luke. Uste duzu pentsioek eragiten duten ardura dela eta, une egokia dela ekarpenen zenbatekoa areagotzeko?**

Aztertu beharreko gaia dela uste dut. Pentsioen sistema berriro zehaztu behar da eta “kutxa bakarretik”, non inork ez baitaki zer zati dagokion eta non “eskua sartu baitaiteke” pentsioez bestelako xedeetarako, GEROAk proposatzen duenera igaro, non bazkide bakoitzak baitaki zenbat duen aurreztuta. Horrela, gardenago sustatu ahalko da

aurrezpena, eta bazkideek aparteko ekarpenak egiteko aukera antolatzea ondo legoke eta beren etorkizuna estaldura gehiagorekin edo gutxiagorekin planifikatzea. Beste kontu bat da enpresetatik egiten den ekarpenen igoera; bezeroentzako prezioetan zuzenean eragingo duten kostu handiagoa ekarriko diete eta horrek lehiakortasun-galera ekar dezake. Nolabait konpentsatu beharko litzateke... Ez legoke arazorik, egungo Gizarte Segurantzaren sistemari barik, GEROAri egingo balitzaio ekarpena... Gai horrek eztabaida luzea behar du, eta gaiari heldu behar zaio.